



**Estatu  
Batuk  
dastatzen**

drogeteniturri

Ermua eta Mallabiko aldizkaria 171. alea 2009ko iraila

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale 2, 1. (Elexoste)  
943 17 93 50.  
drogeten@gmail.com

www.euskalbirusa.org

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Estibalitz González,  
Asier Ibaibarriaga,  
Alazne Aiestaran,  
Eneritz Aranburu, Olatz Gil  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Kepa Bárceñas.

**LAGUNTZAILEAK:**

Igone Amesti, Patxi Lopez,  
Alejandro Masie, Justo  
Azagirre, Idoia Carracedo,  
Fernando Aranberri eta  
Fede Iturriagagoitia.

**ARGAZKIAK:**

Ainhoa Lasuen, Elixabete  
Agirregomezkorta,  
Asier Ibaibarriaga,  
www.zikliamatore.com,  
Estibalitz González, Dorleta  
Vidal eta 'Astola' aldizkaria.

**PUBLIZITATEA:**

688 63 28 76.

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Aritz eta Ekaitz Muñoz  
eta Jon Arano.

**TIRADA:**

2.200 ale.

**ISSN:**

11 33-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/94.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko hegaztiak

...Fede Iturriagagoitiak batuta

Oilo baten itxura du eta erreka eta urtegiatiko betiko biztanlea da; hortik bere izena. Hegazti mardul honen lumatzen, beltzak eta marroi ilunak dira nagusi eta alboetan, saihets gainean luma zuri ilara bat ageri zaio. Mokoa gorri-gorria du, puntatxo horia badu ere. Zerbaitek ikaratzen duenean, buztana astintzen du. Urpekari aparta da eta burua ur azpira sartuta harrapatzen du janaria. Ur gainean gero, plisti-plasta zaratatsuan, lasterka egiten du abiadura hartu eta hegan hasi ahal izateko. Aixolako presan ikusten da sarri; aspaldiko sasoieta S. Pelaioko kunbotik gora edo Hanbre aldean ere ikusterik bazegoen.

**Uroiloa** Polla de agua  
*Gallinula chloropus*



## Hilabete honetan...

TALDE-TXOKO .....4 Merkatari eta Ostalarien elkarte	KIROLZALE .....17 Aitor Hernández
ELKARRIZKETA .....5-7 Kepa Bárceñas	ANTZINAKOAK .....18 Ermua eta Mallabiko argazkiak
MALLABIAN ZER? .....8-9 Ermittak	SALEROSKETAK .....19 Saldu, erosi edo agurtu
ERREPORTAJEA .....10-11 Ermuko armariak	IRITZIA .....20 A Gripea
MOTZEAN .....12-13 Suteak / San Martin	KALEKO INKESTA .....21 Ermuko eta Mallabiko jendearen iritziak
ERMUAN ZER? .....14-15 Candida Ardanza	AGENDA .....22 Urriko agenda
BOTEPRONTOA .....16 Jose Mari Aldekoa	

### Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Merkatari eta Ostalarien elkarte

**Herrian kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko, dendari eta tabernariak biltzen ditu elkarte honek. Ia 100 bazkide ditu eta datorren urtean 25. urteurrena ospatuko du.**

**- Zein urtetan sortu zen taldea?**

Taldea 1985. urtean sortu zen.

**- Zenbat kide zarete?**

Gaur egun 96 bazkide dago.

**- Zeintzuk dira zuen helburuak?**

Elkarteak, Ermuko denda eta tabernak guztiona den proiektu bakar batean batu nahi ditu. Proiektuak ondorengo atalak ditu: Formazioa (profesionaltasuna handitzeko, ikastaro eta jardunaldien berri ematen die), diru-laguntzen inguruko informazioa, instituzioekin harremanak, denenak diren hornitzaileekin negoziatu, herriko beste talde eta elkarteekin kolaboratu... Horretaz gain, herriko jendea denda eta tabernen garrantziaz ohartzea nahi dugu eta gure bezeroen leialtasuna indartzeko kanpainak egiten ditugu.

**- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?**

Zuzendaritza-batzordeko kideak hilean behin elkartzen gara eta talde txi-



kietan bilerak egiten ditugu bazkideekin (4 edo 5 bazkideekin), egin ditugun ekintzak baloratzeko eta datozenak azaltzeko. Urtean behin, batzar nagusia egiten dugu, aurreko urtean egindako guztia aurkezteko. Horretaz gain, beharrezkoa denean, ezohiko bilerak egiten ditugu. Elkartearen lokalean biltzen gara (VI Centenario 11, 1. G) edo Lobianon, bazkide guztiak elkartu behar garenean.

**- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?**

Aurten egin ditugun kanpainen arte-

an hauek daude: zozketak, opari-txekak eta kafearen astea.

**- Txangorik egiten duzue?**

Ez. Lana eta familia uztartzea zaila da guretzat. Beraz, zaila da horrelako ekimenak antolatzea eta parte-hartzea bermatzea.

**- Zuekin harremanetan jartzeko?**

Interesatuak elkartearen lokalera etor daitezke. Bestela, 943174147 telefonora deitu, faxa bidali edo acermua@euskalnet.net helbidera mezua bidali.

Dorleta Vidal

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**GARAGARDOGEGIA** CERYECERIA  
NHEV

**ZYTik**

OTARTEKO eta  
INPORTAZIOZKO  
GARAGARDOtan  
berezitasuna

943 17 39 78



Temple (Hong Kong)

**Hepa Bárcenas, 7 urte AEBetan:**

**“Nire lana txikleak murtxikatzea da, eta zaila da, benetan!”**

Hepa Bárcenas ermuarrak 37 urte ditu eta 2007tik Wrigley enpresan egiten du lana. Enpresa horretan besteak beste Orbit, Five eta Boomer txikleak, Sugusak eta Solano gozokiak egiten dira. Megu gogorak izaten dira Chicagokoak, baina bere lana eta AEBetako natura maite ditu Hepak. Momentuz, beraz, bisitan baino ez du Zubiaurre berriro zapalduko.

e|k|o|r|r|i|z|k|e|t|o

**- Nola izan da zure ibilbidea Wrigleyra heldu arte?**

18 urterekin Gasteizera joan nintzen, 'Elikagaien zientzia eta teknologia' ikastera eta 11 urtez bizi izan nintzen bertan. Nire ametsa, unibertsitatean irakasle izatea zen, baina ez nuen euskara azterketa finala gainditu eta nire ametsa hurrentzen zela penaz ikusi nuen. Handik gutxira Bartzelonatik deitu zidaten, Danonen lan egiteko eta Danonek AEBetan postua eskaini zidan, eta nik onartu. Fort Worthera eraman ninduten, Texas, Dallasetik hurbil, eta nahiko harrigarria izan zen kaleetan cowboyak ikustea, kapela eta botekin, rodeoak... Bertan 5 urtez egon nintzen eta 2007an lana aldatu eta Wrigley nahi nintzen, Chicagon, Dallasetik iparraldera.

**- Zer lan mota egiten duzu bertan?**

Ikasketak bukatutakoan, 'Zentzumeneren analisia eta kontsumitzailearen inguruko ikerketa' doktoretza egin nuen. Honi esker, elikagaien kalitatea zentzumeneren bidez aztertzen da (ukimena, usaimena, ikusmena, dastamena eta entzumena), elikadura ohiturak azaltzen ahalegintzen gara (zergatik jaten dugu jaten duguna, zelako eragina du zapore goxoak gosearengan) eta kon-

tsumitzailearen onarpena edo ukapenaren arazoak aztertzen ditugu (zergatik produktu batzuk arrakastatsuak dira merkatuan eta beste batzuk ez?, zein zapore gustatuko zaie kontsumitzaileei?). Berrikuntza sailean lan egiten dut eta nire lana asko gustatzen zait, interesgarria eta dibertigarria da. Nire bulegoa txiklez eta gozokiz beteta dago. Zertan lan egiten dudan galdetzen didatenean, "txikleka murtxikatzen" erantzuten dut, "zer zaila, ezta? Je, je" eta "horregatik ordaintzen dituzte?". Ba bai, benetan zaila da!!

**- Zelakoa da zure bizitza bertan?**

Chicagon bizitzea ikaragarria da, udaberri, uda eta udazkenean batez ere. Oso hiri aktiboa da. Michigan lakua ere zoragarria da, itsasoa ematen du. Gehien gustatzen zaizkidan gauzen artean jatetxeak daude, mota, estilo, jatorri eta prezio guztietakoak aurkitu ditzakezula. Probatu ez duzun zerbait topatzen duzu beti. Hala ere, gauzak asko aldatzen dira neguan, Gabonak pasatutakoan batez ere. Iaz, -20F izan genituen astebetetz (-28°), eta tenperatura -10°ra igo zenean, beroa igartzen zen. Gorputza edozein baldintzatarara ohitzen da.

**- Erraz moldatu zinen**



Kepa, Chicagoko hiria atzen duela.

**hango bizimodura?**

Txoke kulturala uste baino handiagoa da. AEBetara etorri aurretik nituen erreferentziak, telebistan eta zinean ikusitakoak ziren ia-ia. Askotan, antzekotasunak ikaragarriak dira; baina beste batzuetan, mito hutsak dira. Fort Worthen (Texas) pasatu nuen lehen asteburuan, hoteleko leihotik begiratu nuen: Hotela hiriko erdigunean zegoen, baina kalean ez zen inor ikusten. Jendea 'mall'era (merkataritza zentrorra) joaten da eguna pasatzera edo igerilekura. Kaleak gure Zubiaurretik oso urrun daude! Gainera ez dago ia espaloirik, ezta oinezkoen pasabiderik. Koxe barik, zureak egin du! Dallas eta Fort Worthen eskaleak bakarrik ibiltzen dira eta errepide ondoan bazau, poliziak susmagarritzat jotzen zaitu eta geratzen zaitu. Hasieran, Bartzelona lagatzeaz damutu nintzen, erabaki txarra hartu nuela

pentzatu nuen, hasierako 6 hilabeteak oso gogorrak izan zirelako. Gero, oso jende jatorra ezagutu nuen eta Dallas gustuz hartu nuen. Faltan botatzen dut oraindik ere!

**- Hizkuntza traba da?**

Hasieran, egun osoa ingelesez hitz egin beharra gogorra egin zitzaidan. Leher eginda bueltatzen nintzen lanetik, ez nuen ia inorekin berba egin nahi... Zorionez, Dallasen jende askok gaztelesez egiten du; baina zoritxarrez ere: nire ingeleza ez zelako asko hobetu. Gainera, Danonen lan egiten nuen, frantseseko klaseak izaten nituen, eta bai, gogor xamarra izan zen. Zazpi urte hemen igaro ondoren, batzuetan jaiki eta ez dut hitz bat ere behar den bezala esaten. Edo zerbait zirrargarria kontatu nahi dut eta gaztelesez baino ez zaizkit hitzak irteten!

**- Zerk harritu zaitu gehien?**

**"Dallasen harrigarria izan zen cowboyak ikustea, kapela eta botekin..."**

**ILEAPAINDEGIA**  
**Izaskun**  
 Goienkale, 9 (Plaza San Martin)  
 48260 Ermua Bizkaia  
 Tel. 943.17 66 90  
**ILEAPAINDEGIA**

komunitateak  
 aseguruak  
**San Pelayo**  
 aholkularitza  
 fiskal eta juridikoa  
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**PUB YOMY**  
**Zubiaurre**  
**kalearen**  
**bihotzean**

Gehien harritu ninduen, eta oraindik harritzen nau, herrialde honetan dauden Parke Nazionalak dira. Herrialde honen natura ikaragarria da. Nire leku gustukoenen artean, Nuevo Mexikoko parke nazional bat dago. 'White Sands' du izena, bere areak oso zuriak direlako. Bestalde, duela urte bi senideak etorri ziren bisitan; Las Vegasera joan ginen egun batzuk pasatzera eta Coloradoko Gran Cañón ere ikusi genuen. Izugarri gustatu zitzaizaien. Bakarra da, ikaragarria, ezin da hitzez azaldu.

**- Obama gobernuan dagoenetik aldaketarik egon da?**

Nire ustez, jendea orokorrean baikorrago agertzen da. Estatubatuar askoren iritziz aldaketa egotea ezinbestekoa zen eta Obamarekin, behingoz, aukera berriak sumatzen ziren.

**- Jendearen izaera ezberdina da?**

Oso galdera ona da hau.

Erantzuna baiezkoa da, baina ez nuke jakingo azaltzen. Orokorrean, Estatu Batuetan jendea oso irekia da lehen momentuan, eta zelan zauden galdetzen dizute momentu oro. Gu, orokorrean, isilagoak gara, lehen momentuan behintzat. Baina ezberdintasunak hemengo jendearen artean ere igartzen dira: Chicago eta Dallaseko jendearen izaera ezberdina da.

**- Hara joan zara bizitzera betiko edo bueltatzeko asmoa duzu?**

Jende askok egiten dit galdera hau. Nire amak esango luke: "Noski ezetz, orain oso gustura dago bertan, baina bere etxea hemen dago, bueltatzen deneko",



White Sands parke naturalean eta Las Vegasen, senideekin.

## "Urtea bukatu aurretik Miami astebete joango naiz, eta Gabonetan, Ermura"

je, je! Egia esanda, hemen betiko bizitza gogorra da niretzat. Era berean, beste edonon betiko bizitza ere, oso gogorra egingo litzaidake. Askok gustatzen zait bidaiatzea eta kultura eta jende berria ezagutzera. Beraz, zoriontsu naizen bitartean, hemen jarraituko dut, eta maletak hartu behar ditudanean, hartu, eta beste leku batera joango naiz.

**- Ermua faltan botatzen duzu?**

Noski! Nire herriaz askotan gogoratzen naiz! Hala ere, urte asko daramat Ermutik kanpo eta gaur egun ez dut kontakturik hango jende askorekin. Urtero Gabonetan nire familia bisitatzen dut eta deseaten egoten gara. Iragarriak esaten duen moduan, 'Gabonetan etxera bueltatzen naiz'.

**- Eta non pasa dituzu oporrak?**

Estatu Batuetan abuztua hilabete normala da, turista gehiago ikusten da, baina normala. Nik aurten Italiara joan behar izan dut, hitzaldi batera, eta familiarekin egun batzuk Venezia, Florencia eta Pisan pasatzeko aprobetxatu dut. Egundutxi izan dira, baina ondo aprobetxatu ditugu. Hemen inork ez ditu bi aste baino gehiagoko oporrak hartzen. Beraz, soberan ditudan egunetan hondartzara joango naiz, Miami, azaroan seguruenera; geratzen direnak Gabonetarako gordeko ditut.

**- Azkenik, ze txikle jaten duzu zuk?**

Galdera horren zain nengoen! Noski, gustukoena duan txikle '5' Cobalt da (pakete beltz horietakoa, 5 bat urdinez duena). Momentu honetan, horrelako bat dut ahoan!

Dorleta Vidal

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21  
ERMUA



# Mallabiko ermitak

## Mallabiko Jasokundearen parroikia

Bere jatorrizko aztarnak XI.mendearen aurkitzen dira, nahiz eta alde zurretik sortua edo fundatua izan. XVI.mendearen barriz, eraikitzen hasi eta 1750ean amaitu zan. Bere berezitasunak ondoko hauek dira: nabe bakarrekoa da eta oso lerro xumeko errerianoko dorrea dauka, kapitel batek amaitzen dabelarik. Lau angeluetan boladun piramideak ikusten dira. Aldare nagusia barrokoa da; hemen Arrosarioko Amaren taila bikain bat ikusi geinke. Taila honen aurretik Mallabiko Andra Mariaren Gotikotik Errenazimendura bitarteko estiloko taila bat izan zan parrokiaren, baina gaur egun inork ez daki non aurkitzen dan. Jaiak abuztuaren 15ean, Andra Mariaren egunean eta hurrengo egunean, abuztuak 16, Roke Deunaren egunean ospatzen dira. Azken barriz-

tapena 80ko hamarkadan egin zitzaion eta egoera oso onean aurkitzen da.

## Zengotitako San Juan Bautistaren ermita

Berriztik Trabakurako bidean, Zengotita auzoko errepide ondoan aurkitzen da. Herriz Mallabia da, baina elizaz Berriz. XVIII. mendeko eraikina da. Oinplano errektangularra dauka. Hiru aldeko abside poligonala, harlanduzko horma nagusitzen delarik eta ageriko manposteriaz bestea. Harrianduz eta egurrez eraikia da eta hiru zertxa gainean lau isurkiko teilatua du. Kanpai bako kanpai-horma, akrotera batez hornitua eta atea, bere ateburu eta guzti. Lurrean harri-losak daukaz. Eskuinean, ebanjelioaren partean, elizpearen hondarrak ikusi leikez. San Juan Bautista, San Ramon Nonato, Gurutzea eta Ama Birjina Garbiaren imajinak bertan



Zengotitako inskripzioa.

dira. Jaia abuztuaren 31an, San Ramon Nonatoren egunez eta hurrengo domekaz ospatzen da. Mallabiko beste auzo batzuetan legez, bezperan 'Donilatxa', 'Doneatxa' edo txopoa jasotzen da. Ermita ondo kontserbatuta dago.

## Historia

Herri tradizioak kontatzen dau lehen parroikia zala eta

orain 200 urte, Berrizko beste ermita batzuen antzera (Andikua, Eitua, Murgoitio) kategoria hori galdu egin ebela. Erdi aroko bi hilobi beraien estalki edo taparekin egozela. Otorara geografia eta historiagileak 1634an aipatzen dau Zengoitin (Cangotita) ulertzen ez diren hilarri (lapidak) batzuk egozela. Orain denbora gutxira arte ateburuan aurkitzen zirela. Halan jasotzen dau Mikel Garikoitz Estornes Zubizarreta historialariak be X-XI. mendeetako hilarria egoela bertan: I(n) no(mi)ne d(omi)ñe / ego Mu / nuto inskripsioarekin. Ideia berbera aipatzen dau XVII.mendearen hilarri hauek izendatuz Carmelo de Etxegarai, gizon jakintsuak. 1972.urtean apropos emondako suak aintzinako imajina zaharrak erre zituan.

Justo Azagirre

Jasokunde eliza orain urte batzuk egindako argazkian.





**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISSETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

943172665 ERMUA



Zubiaurre 20

*Pintxoak, otartekoak...*

*eta hostalarien umore ona*

## BERBALAGUN EHEMINA MARTHAN URRIHAREN 2TTIK AURRERA

Berbalaguna euskaldun zaharrak eta euskaldun barriak alkarraz ipintzen dittun ekimena da eta helburu bi daukez. Alde batetik, euskaldun barririk ikasittekue erabiltteko mintzapraktika da. Bestetik, talde euskaldunen presentzirik herriko paisaia linguistikoan eragitten dau eta, holan, gune euskaldun gehixago sortzen dira.

Mallabiko berbalagun talde barixekuero alkartzen da, arratsaldeko 17:30etatik 18:30etara, kafe orduen. Gure dauena, euskaldun barri zein zahar izan, hurreratu leike eta parte hartu. Beharrezkue balitz, talde bi sortzeko beste lagun balego, beste ordutegi bat ipini ahal izango litzake. Mallabiko berbalagunek urriaren 2xen alkartuko dira aurten lehenengo, arratsaldeko 17:30ean. Interesdunek egun eta ordu horretan Herriko Tabernan aurkituko dittue. Berbalagun barrirek nahixago balebe, herriko beste tabernetan be geratu ahal izango litzakez.

## AURTEN EZ DA IDI PROBAIK EGON ANDRA MARI JAIEGAN

Pasa dan abuztuen, Andra Mari Jaixen barruen, aurten ospatzekuek ziren XXII. Idi Probak bertan behera geratu behar izen ebien. Mallabiko udalak jakinarazi deuskunez Bizkaiko Foru Aldundixek, Abuztuaren 13en foru dekretu bat plazaratu eban eta bertan zioen tuberkulosi frogak pasatzen ez zittuezan idi bikotiek ezingo ebiela parte hartu Bizkaixen jokatuteko idi probetan. Mallabixen izena emonda eguezan bikote gehixenak Gipuzkoarrak izan eran, horrek frogak horrek pasatu barik eukiezanez, ez eben tarte nahiko izan frogak pasatzeko eta bertan behera itxi biher izan zittuezan aurreikusittekue jaialdi guztixek. Udalak bere atsekabie azaldu dau, aurten ilusiño haundixe eukielako, harriari be moldaketa batzuk eginak eguezan probek ikusgarrittasune irabazte aldera

## ERMITTEN II. IBILALDIHE IRAILAREN 26HEN

Aurten bigarren ermita arteko ibilaldixe ospatuko da Orraitiok antolatute irailaren 26xen. Plazan alkartuko dira goixeko 9xetan, erropa erosue eta motxilan baktokak bere hamarretakue hartute. Handik Areittixoko Esperantzako Amaren baseliza bisitatuko dabe, San Trokaz, Zengoitteko San Juan Bautista eta San Ramon Nonato, Osmako San Migel, San Martin eta San Adrian Gerian. Ibilaldi hau guztire 4-5 bat ordukue izango da gutxi gora behera, egurdiko ordu bixek aldien Goittako Zumarra elkartien bazkarixe egongo dalarik nahi dabenantzako. Irailaren 23e baino lehen izena emon biherko dau bai ibilaldixe egin eta bazkaltzera juen nahi dabenak edo bazkaltzera bakarrik doienak. Izena emoteko, ba, deitu Kultur Etxera 943176691 telefonora.

## 406A IHASTARUE URRITIK AURRERA

Milaka urtez praktikatzen da yoga munduen. Mallabixen be badarioez urte batzuk taldetxo batek eta aurten be bizimodu beste era batera ikusten erakusten daben praktika hau eskeiniko da eskolako gimnasixuen. Interesa daukenak 61596058 telefonora deitu irailaren 28ttik aurrera.

Eneritz Aranburu

**ARRIETA CORDEVI**

Elektratresnak,  
telebistak, bideoak,  
musika aparatuak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario Kalea, 5 ERMUA

**MUGA**

**KALORIK**



San Pelaio 4A behea  
Telefonoa: 17 64 77  
ERMUA

**AKADEMIA**

**ERMUA INFORMATIKA**

TRESNERIA ETA OSAGAI  
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g  
Telefonoa (943) 17 90 38

**IZOTZ**  
KONTELATUAK



Ermuko Merkatua.  
54 eta 55 postuak  
943 17 41 01  
Arrasateko Merkatua  
943 77 05 98

**ELUR**

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma
- Laser depilazioan espezializatuak
- Kontsulta mediko-estetikoa



**Aldapa 1** **943 17 60 52**

**URRETA** burdindenda

- ✗ Etxea
- ✗ Tresneria
- ✗ Brikolaita
- ✗ Rielak
- ✗ Giltzak
- ✗ Zerrailgintza
- ✗ Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



# Ermuko armarriak eta Done Jakue Bidea (II)

**“Santiagorako Bidea erromesaldi zein komertzio-bide modura erabiltzen zutenentzat, gure herribildua atsedenleku zen ziur aski. Heraldika ermuarrearantz gordetzen diren Done Jakueren ikur ugarietan islatzen da hori”.**

Uztaileko alean ‘Done Jakue Bidea Ermutik’ izenburupeko artikuluan jasotako esaldi hark hasiera ematen dio honakoari eta jarraipena aurreko hari. Jon Cano, Txisko Fernández eta Iñaki Arregi historiagile ermuarren aipu horren harira, gure herriaren heraldikan Done Jakue Bideak lagatuko aztarnak biltzen ahaleginduko gara ondorengo lerroetan.

## Ondo hartuak

Nekearen nekez erremendatuta, hanka azpiak minduta eta puspiluz beteta, gaez, sarritan desorduetan... batek daki ze modutan iritsiko ziren gure herrira pasoa zihoaz bidaiariak. Non eskatu ostatu? Non salda bero bat? Etxeen ateburuetan eta armarrietan irudikatutako sinbolo jakin batzuen bidez ematen zen aditzera erromes edo bidaiariak ondo hartuak zirela etxe horretan. Ermuaren kasuan ere, Done Jakue Bidearekin zuzenean lotutako bi ikur

daude irudikatuta herriaren armarrian: venera eta Santiagoren Gurutzea. Juan José Gonzálezek, 2001ean prestatutako ‘Informe heráldico de la Villa de Ermua’ lanean, bi elementu adierazgarri horien jatorria azaltzen digu:

“Venera, bieira edo erromes-maskorra molusku baten maskorrari deitzen zaio, Santiagotik bueltan zetozen erromesek beraien esclavinetan (lepotik beherako kapa haietan) lotuta zeramatena.

Santiagoren Gurutzea, ezpata-gurutze izenez ezaguna, XIII. mendetik aurrera Santiagoren Zaldun-ordenaren maestreek erabilia izan zen”.

Marcelino Onandia Estradak, Ermuko ‘Gráficas Onandia’ inprimategian 1971an argitaratutako ‘Ermua I’ liburuan, honakoa dio hiribilduaren armarrira dela-eta:

“Armarraren bieira eta gurutzeari dagokienean, Done Jakue Bideko ibilbide guztietan azaltzen diren sinbolo argi eta garbiak di-



‘Santukua’ n egondako armarrira, oraindik kontserbatzen du familiak.

renez gero, pentsatu beharra dago Ermuak nolabaiteko zerikusia izan zuela mundu mailan guztiz ezaguna den ibilbide horrekin. Litekeena da Ermua, aipatutako bideak Orreagatik Compostelara XI. eta XII. mendetan izan zituen saihezbide ugarietako baten egotea, hiribilduan dauden armarridun etxeetan sarritan azaltzen baita ezaugarri hori”.

## Ikur bila

Javier de Ybarra y Bergék ‘Escudos de Vizcaya’ argitaratu zuen 1967an. Sasoi hartan Ermuan tente zeuden eraikinen gainean ikertutakotik, gure gai honekin zeri-

kusia duena bereiziko dugu bakarrik:

“Santukuako antxinako dorreak, puntu erdiko arku-dun ate nagusian, armarribat dauka erdibituta; alde-tako baten sastakai edo puñal bat dago eta horren gainean bieira bat, erromesek Compostelarako bidean Ermuko hiribilduan zehar egiten zituzten joan-etorrien adierazgarri seguruenik.

Bestalde, Eizaga-Etxebarria etxearen armarrian ere ikur jakobinoak azaltzen dira: erdiko orla zortzi erromes-maskorrez dago apainduta. Badirudi, bada, erromesek itsasertzetik Santia-

**DO**  
Mouth

Drogeteniiturrri, 171 zkia.

**OSASUNA ETA EDERTASUNA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA

*Marfil*

**FISIOTERAPIA**

943 17 28 09  
Goienkale, 12 - beheko

**Infreñu**  
Taberna

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
www.infretaberna.com

gorantz egiten zuten bidean, Ermua etapa garrantzitsua izan zela.

'Zarra Etxea'n ere, ondolan dagoen eraikinaren puntu-erdiko arkudun ateburuan, armariak erromes-maskor bat du.

Amaitzeko, 'Motxu' etxeak -gaur egun Zenarruzabeitia jaunaren jabegoa, bere etxeok Valdespinako Markesari erosi ziotelako- ondorengo armaria du: gurutzea kasket gisara eta haren alboetara fardela eta erromes-maskorra. Badirudi armari horrek erromesen

Santiagorekiko lotura adierazten duela".

Lau eraikin horietatik tente dagoen bakarra Eizaga-Etxebarria etxea da, 'Alboka' Musika Eskolaren egoitza gaur egun. Gainontzekoak desagertuta daude: 'Santukua' dorrearen lekua 'Jai Alai' tabernak betetzen du gaur egun Goienkalen; trenbidera orduko, 'Palaziozarrar' tente dagoen arren, ez ordea haren ondoko etxea, eta ate nagusiaren azken arrasto gisa arkuaren dobelaren zatitxo bat dago oraindik; Konbentuakuo 'Motxu' baserria ere



Trake' baserriko ateburua, bota aurretik.



'Palaziozarrar' ondoko etxeak izandako armariaren marrazkia.

aspaldi bota zen.

'Trake' baserria Lobiano jauregiari erantsita egon da oraintsu arte eta haren armariaren gainean Juan Antonio Pinedok, 'Bizkaiko Herrien Monografiak: Ermua, Mallabia, Zaldibar' liburuan honakoa dio: "...lehenengo laurdenean, maskorraren gainean eutsita dagoan lisoredun gurutzea dago".

Idatzizko aipamenik aurkitu ez arren, Santiago Elizakobi lekutan dago Santiago-gurutzea irudikatuta: bata ate nagusiaren barrualdetik, egurrean landuta eta bestea korupean, Doloreetako Amaren gaineko armarrarian.

Bestalde, Udaletzeko eskaileretan dagoen beste harri baten ere gurutze batek erdibitzen du berori: alde

batera ura eramateko kalabaza dago eta bestera erromes-maskor bat. Valdespina jauregiaren barruko patioan egon zen horman sartuta, zalditegia zegoen tokian eta zaldioek edateko zeukaten harrizko aska baten gainean. Animalioek lotuta eukitzeko burdinazko ferra ere bertan zegoen.

Beno bada, bidaiar-lagun preziatu hori, hona arte gaurkoa. Erromesen joan-etorrien idatzizko testigantzen urritasuna, etxe-horma, leku-izen eta bideetan utzitako lorratzekin asetzirik ez, eta bidea eginez egiten denez, beste bide mota batzuk izango ditugu hipside sailtxo honen hurrengo atalean.

Estibalitz González

**ARTARRAI**  
OPARI DENDA

Goienkale, 5 • Telf. 943 17 44 19  
ERMUA

**OUTUMURO KAFETEGIA**

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

2009/2010

DURANGALDEKO ESPERIENTZIA INSTITUTUA

Ikasi eta gizarlean era aktibo baten parte hartu nahi izanez gero, DEI-ek onartutako diruen ikastaroetan izena emon behar da. AUKERATU GOGOIKOENAK. Ez da beharrezkoa omeztu titulaziorik izatea.

ZAHARTZARO ARRAKASTATSU ETA JANTZIA (gaztelerez)  
ASTELEHENA 9.30etik - 12.30era  
Urtarrilaren 19tik Maiatzaren 24ra arte

NAGUSI IZAN XXI. MENDEAN (gaztelerez)  
ASTEAZKENA 9.30etik - 12.30era  
Urtarrilaren 25tik Maiatzaren 26ra arte

DURANGALDEKO ONDARE KULTURALA (OSTEGUNA: 9.30etik - 12.30era  
Urtarrilaren 1etik Maiatzaren 27ra arte

IKASTARO 3

ARGIBIDE GEHIAGO  
94 623 25 22  
Durangaldeko Behargintza

+55

Durangaldeko Behargintza  
Durango

**POSTAL LEHIAKETA  
BUKATZEAR**

Irailaren 30ean, Euskal Birusak antolatutako Postal Lehiaketa bukatuko da. Parte hartu nahi dutenek, egun hori baino lehen bidali beharko dituzte euren udako postalak. Lehiaketaren Lehenengo saria, Tenerifera astebeteko bidaja izango da; bigarrena, asteburu pasa landetxe batean eta hirugarrena egun pasa Spa batean (sari guztiak bi lagunentzako dira). Parte hartzaile guztien artean, gainera, afari bat zozketatuko da. Gazte txokoa, berriz, 50, 40 eta 30 euroko erosketa txekak banatuko dira. Animatu!

**IGERILEKUA ZABALIK**

la hilabete t'ardi itxita egon ondoren, kiroldegiko igerilekua irailaren 7an zabaldu zen. Obra hauei esker, igerilekuaren sakonera murriztu da eta orain 1,20 metrotik 1,40ra bitarteko sakonera du igerileku guztiak. Honekin, ur-kontsumoak behera egin du eta baita ura berotzeko behar den energiak ere.

**AUKEREN AZOKA  
ARRAKASTATSUA**

Hilaren 10, 11 eta 12an, Aukeren Azoka ospatu zen Orbe Kardinalaren plazan. Bertan 12 dendek parte hartu zuten eta egun eguzkitsuz gozatzeko aukera izan zuten bezeroek. Balorazio ofiziala egin ez badute ere, iazko edizioarekin alderatuta, salmenta gehiago egon direla uste du Hostalarien eta Merkatarien Elkartek.

**Suteak Mallamendin**

Sutea egon zen Mallamendin irailaren 10ean. Sutea 19.15 inguruan hasi zen eta inguruetan ke zutabe handiak ikusten ziren. Hamar minutu igarota, Durangoko suhiltzaileak heldu ziren eta apur bat beranduago, Markinako suhiltzaileak ere etorri ziren Ermura. 22.30ean sutea kontrolpean zegoen, baina suhiltzaileek luzaroan jarraitu zuten inguruak bustitzen, sua berriro ez pizteko. Sutea kontrolpean izatea zaila izan zen, "ibilgailuek bertaraino heltzea zaila izan zelako, ibilgailuak utzi behar ziren lekutatik suterainoko distantzia 500 m. ingurukoa zelako", diote Udaltzainek. Sutea irailaren 15ean piztu zen berriro, 13.15ean, eta Markina, Durango eta Basauriko suhiltzaileak etorri ziren. Bi ordu beranduago, euria lagun, sutea amatatuta zegoen.

**Markos Gimeno, 'Sustatu'n kolaboratzaile**

'www.blogak.com/zerorajasoa' hitz jokoen bloga eta 'www.euskalbirusa.org' webgunearen arduraduna den Markos Gimeno, www.sustatu.com albistegi digitaleko kolaboratzaile da irailaren 18tik. Markosek lantzen duen atalak 'hitzokei' du izena eta bertan, hizkuntza abiapuntu hartuta, hiztegi eroa sortuko du, hitzei esanahi berriak emanez eta hitz berriak asmatuz. Edozeinek parte har dezake atal honetan, sustatu.com-en edo twitterren bidez eurek asmatutakoak bidalita. 'Hitzokei', 'Letrak sare kantotik' atal berriaren zati da, eta Markosek Maite Goñi eta Anjel Lertxundirekin konpartituko du espazioa. Hirurek, egungo hitz eta esamoldeak landuko dituzte hurrenez hurren.

**Euskaltegietakiko Matrikulazio epeak zabalik**

Kaltxango AEK euskaltegiak honako ikastaroak eskainiko ditu 2009/2010 ikasturtean: Euskalduntzea: 1, 2, 3 (Hasierra maila), 4, 5, 6 (Oinarrizko maila), 7, 8, 9 (Goi maila), 10, 11, 12 (EGArako bidea). Horretaz gain, Hobekuntza, Mintzapraktika, Berbalagun eta Online bidezko ikastaro osagarriak eskainiko ditu, eta baita 1., 2., 3. eta 4. mailtako tituluak ere. Matrikula, irailaren 30ra arte egongo da zabalik eta interesatuek Bizkaia etorbidea 13, behera jo beharko dute, 943171940 telefonora deitu edo kaltxango@aek.org helbidera mezua bidali. Udal Euskaltegian, berriz, matrikulazio epea irailaren 25ean bukatuko da. Bertan, Euskalduntzea, Alfabetatzea, HABEko 1., 2. eta 3. maila, EGA eta Hizkuntza eskakizunak lantzeko klaseak egongo dira. Egunean bi orduko saioak emango dira, astelehenetik ostegunera, eta EGAko 3. mailako klaseak astean bi egunetan burutuko dira. Matrikula 16 urtetik gorakoentzat dago zabalik eta interesa dutenek, Teresa Murga eraikinera jo beharko dute (Goienkale z/g, 2. solairua), telefono honetara deitu 94317025 edo euskaltegia@udalermua.net helbidera idatzi. Euskaltegi bietarako diru-laguntzak emango dira.

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA

**EGANA**  
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK  
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA  
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR

**TALAPARTA**  
ABERNA

ASTEBUKURVETAN  
BOKATAK, PINTXOAK  
ETA AFARIAK

## Azaroaren 14an San Martin azoka



Opor osteko urteroko galdera izaten da: "Noiz da San Martin azoka?" Azaroaren 14an lagunok! Gainera aurtengoa kristorena izango da, azokarekin hasten baitira EUSKAL BIRUSAREN 20. URTEURRENAREN ospakizun ekitaldiak. Euskal Biruseko kideak prestatze lanetan buru belarri sartuta daude, azoka eguna eta ondorengoak ahalik eta gustagarrien egiteko ahaleginetan. Zuei dagokizue orain egun hori egutegian gorritz borobiltzea. Gogoratu kintxo-bazkari, lagun-despedida edo herritik kanporako baz-

kari zein kutxipanda guztiak atzeratu edo aurreratu behar dituzuela lehenbailehen, egun horretan giroa ERMUAN daukazue eta. Ah, eta deskuidu santuan ermuarren bati egun horretan ezkontzea bururatu bazaio... talogile artean ateratako ezkontza-erretraturik ez du beste inork izango bere albumean! Agur Egun Handira arte!

## Sokaide talde arabarra garailea 'Folkez Blai'n

Sokaide talde arabarrak lehen postua eskuratu zuen eta 3.000 euroko saria jaso zuen irailaren 11 eta 13a bitartean, 'IV. Folkez Blai' musika lehiaketan. Bigarren saria, 1.500 eurokoa, 'Dúo Nua' madrildar eta irlandar bik osatutako bikotearentzat izan zen. Epaimahaiak taldeen maila eta inplikazioa goraipatu zuen eta baita finalera heldu diren taldeen zuzeneko kalitatea. Gainera, folk musikan erabiltzen diren musika tresnen tailerrak ere arrakastatsuak izan ziren antolatzaileen esanetan. Lehiaketatik kanpo, Ermuko bi taldek ere parte hartu zuten jaialdian: Nemon eta Flipin Folk taldeek. Honetaz gain, 'Mauvais-Sort' kanadarra talde gonbidatua izan zen. Hiru egunetan folka jotzen duten 9 taldek parte hartu zuten, hainbat lekutatik etorrira (Araba, Valentzia, Valladolid, Madril-Irlandatik eta Kanadatik).

## Mugarritz Mugarri 2009, urriaren 24an



Artarra mendi taldeak, Mugarritz Mugarri ekitaldia antolatu du aurten ere, urriaren 24rako, larunbata. Iaz, 162 herritarrek parte hartu zuten (ondoan dagoen argazkiak erakusten duen moduan) "eta giro paregabea Ermuko lurralde-mugak ezagutzeko aukera izan zuten", Artarra mendi taldeko kideek diotenez. Goizeko 8:00etan plazatik irten eta 6 orduko ibilbidean, mugarriak, inguruko baserri apurrak eta tontorrak zeharkatuko dira: Sallabente, Eitza, Ureta baserriak, Mallamendi, Errekalde,

Hirumugarre eta Urko, besteak beste. Indarrak berreskuratzeko, berriz, hamaiketako eskainiko diete antolatzaileek parte-hartzaileei Errekalden. Artarra taldeak ermuar guztiak gonbidatu nahi ditu ekintza honetan parte har dezaten.

## JUANITA IBAIBARRIAGA LITERATUR SARIA MARTHAN

Ermuko gazte eta helduen artean euskaraz idazteko zaletasuna pizteko asmoz, Euskal Birusak eta Udaleko Euskara Sailak Juanita Ibaibariaga sariaren XVI. edizioa martxan ipini du. Oinarriak ezagutzeko [www.euskalbirusa.org](http://www.euskalbirusa.org) edo [www.ermua.es](http://www.ermua.es) webgunera jo daiteke.

## ERMUAN KANTUAN, HILAK 26

Hilabeteko azken larunbatean gertatzen ohi denez, hilaren 26an Ermuan Kantuan izango da kaleetan. Ekimena 12.30ean hasiko da, Orbe Kardinalaren plazan, eta Alboka Musika Eskolako trikitilariak ere bertan egongo dira. San Martin azoka egunean ere, Ermuan Kantuan egingo da.

## LANGABEZIA BIHOIZTU EGIN DA ERMUAN

Pertsona langabetuen kopurua bikoiztu egin da azken urtean herrian, SPEINEMen datuen arabera. 2008ko uztailan, 527 ermuar zegoen INEMen apuntatuta, aurtengo uztailan, berriz, 1.125 lagun dago langabezian. Datuek erakusten dutenez, zerbitzuetan lan egiten dutenek eta 25 eta 44 urteko emakumeek jasaten dute langabezia gehien.

**QUETZAL**  
gazte denda  
Baietz topatu  
gustuko  
zeozer?  
Goienkale 9  
943 17 00 65

*Proba-Leku*  
Neapaindegia - Estetika  
  
Probaleku 3, 1A  
Tel. 943 17 05 42

  
URDAITEGIA - CHARCUTERIA  
**MAYTE**  
Plaza del Mercado  
Tel. 17 24 12  
ERMUA

  
**CITROËN**  
**AUTOS AMEDI**  
Zearreko buelta 3 L8 pab.  
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14

# 101 eta aurrera!

**Ez da egunero idazten dogun gauzia: Candida Ardanzak 101 urte bete ditxu egunotan.**

**B**erari San Antolin egunian jaixua da-la esatia gustatzen jako, irailaren 2a baiño interesantiaua begintxanduta itxuria. Candida izendatu eben Ermuko 'Joxio' basarrixan jaixotako ha neska txikixa.

'Ermua-Eitzaga. Leku-ize-nak' liburuan, Fernando Aranberri Odriozolak ondokua diño 'Joxio' bere jaixotetxiaren gaiñian: "*Baserri hau, gutxi gora behera, 1859an ekin zioten altxatze-ari. Hasiera batean, txabola modukoa zen. Geroago baserri bihurtu zuten. Gerra zibilaren ostean nahiko hondatuta gelditu zenez, bertakoak baserria laga eta kale-ara joan ziren. Jendea baserrian sartu eta dena apurtzen hasi zenean, ezustekorik gerta ez zedin, bota zuten. Joxiora joateko bi bide zueden: bata, Sallabentetik eta bestea Ermutik. Lehenengo bidearen aztarnak ikus daitezke oraindik. Biga-*

*rren gurdibidea, berriz, 'Joxio'tik Ermurakoa, Torretan amaitzen zen. Gaur egun bide hau porlanezkoa da*".

Eskolara Sallabenterako bidia hartuta juaten zan; Ermura edo eskolara artekoa oiñazian eitxen eben eta sarritxan antxitxiketan be bai, zein baiño zein ariñago eifi! Goguan dakaz Eitzako baserrixen izenak, haren baten eskolatik bueltan baserrixotako neskatoen bat kontrarixua izango ebalako 'tortolose-tara' olgatzerakuan. Arotza zan aitxa eta trenbidia baiño beheratxua ekan arotzerixia.

### **Bihargiña**

Gazte-gaztetatik bizimodua etaratzera urten bihar izan eban. eta taillarrera. Debako etxe baten serbitzen egon zan eta Ermuko 'Izarrako'neko taillarrarian be ekin otsan.

23 urte zitxuala, Ermuan eta Manuel Agirregomezkorta Izagirre ermuarrakin ezkondu zan 1932ko febrerua-



Candida, Elixabete alaba eta Jon billobarekin.

ren 6xan, Santa Ageda hurrengo egunian. Plazan bizi izan ziran andra-gizonok eta hantxe jaixo ziran Elixabet eta Ana Mari alabak be.

### **'Inbirri'**

Manuel, 'Inbirri' gatzize-nagaitxik ezagunaua, 'Lomiño'neko taillarrarian euan enpliauta; beran orduak eifi eta gero, illuntzi aldera etxian giltzak eifi, zerraillak konpondu... zerrajerixa kon-tuetara dedikatzen zan. Ate danak zabalik eta giltzatu barik euzen herri baten, biharrik bai zerrailla-kon-pontzaille batendako? Bai itxuria, etxe barrixak eitxen

hasi ziranian endemas. 24 orduz zabalik euki biharreko negoziuxa ei zan, ze edozein ordutan presentatzen jakon bateron bat, estu, atia zabaldu eziñik euala eta. Badaezpadan be, ring! eta ring! iñork desorduetan deit-zeko tentaziñua euki ez zeixan, Inbirrik ez eban sekula telefonorik ipiñi.

Ehun ta piku honek urtitan, on eta txar, danetik ikusitxakua da Plazako Candida. Zaharren Egoitza barrixan dago oin eta bisitan doiana irribarretsu hartzen dau.

Estibalitz González



**TOLDOS Y PERSIANAS ORBE**

- MUNTAIA ETA KONPUNKETA
- MOTORIZAZIOA
- PERTSIANA DEKORATIBOAK
- PERTSIANA BILGARRIAK
- SEGURTASUN PERTSIANAK
- MOSKITERAK
- ESTOREAK
- GORTINAK

TAILERRA: Zearreko buelta, 2  
Tel. 943 17 66 34  
Tel. mugikorra 630 01 13 41  
48260 ERMUA (Bizkaia)

ERAKUSKETA: Karabixa, 1  
Tel. 943 17 98 60  
48260 ERMUA (Bizkaia)

**MENDIOLA**  
Restaurante - Jatetxea

Erdikokale, 19                      48260 ERMUA  
Telefonia 943 17 22 43              (Bizkaia)

**KRABI**  
Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56              Diputazio, 5              ERMUA



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia	- Klarineta
- Biolina	- Panderoa
- Biolontxelo	- Perkusioa
- Bonbardino	- Pianoa
- Flauta	- Saxofoia
- Kantua	- Trikitrixa
- Gitarra	- Tronboia
- Gitarra elektrikoa	- Tronpeta
- Gitarra baxua	- Txistua
- Lengoaia musikala	

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

# Mila esker Txikurizaleok!

**U**ztailaren bukaeran Euskal Birusak TXIKURIXA zabaldu zuen 'Bolintxo' zegoen lokalean. Bertan lagundu zeniguten guztioi, baita tragoa hartu edo pintxoak jatera etorri zineten guztioi ere, eskerrak eman nahi dizkiegu.

Txikurixaren bitartez, elkartearen auto-finantziazioa handitzeaz gain, herriko jai giroan euskararen presentzia handitzea, eta elkarte-ko bazkide zein herriko lagunen parte hartzea sustatzea

izan ziren gure helburu nagusiak. Gogotsu lan egin ondoren, gure helburuak bete ditugu. Horrela, zuen laguntzari esker, Txikurixan lortutako dirua Euskal Birusa Elkarte Kulturalak garatzen dituen ekimenetarako izango da.

Lan handia egin dugu, hitzetan ezin eskertzekoa. Orain, burura datorkigun galdera... Datorren urtean berriro zabalduko ote dugu? Izango duzue horren berri!

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala




## TXIKURIKO 111 LAGUNTAILEAK

Izagirre sendia, Juan Antonio Izagirre, Elias Uriarte, Irune Mugerza, M<sup>a</sup> Luisa Pérez, Jesús Gómez, Rosa Areitioaurtena, M<sup>a</sup> Angeles Landarroitajauregi, Alizia Araiztegi, Lara Alonso, Tamara Lorente, Unai Rodriguez, Nora Mateos, Maialen Agirregomezkorta, Roge Bouzo, Maite Hormaetxea, Nahikari Benito, Olatz Gil, Eba Garcia, Aroia Lejardi, Laura Agudiña, Jose Carlos Ibaibarriaga, Asier Ibaibarriaga, Moo González, Gaizka Zamakola, Txebis Gorritxategi, Idoia Zamakola, Eli Areitioaurtena, Juan Hernández, Joseinas Larrañaga, Andoni Esmeralda, Alazne Aiestaran, Piedi Eizagirre, Bea Narbaiza, Thomas O'Callaghan, Goiatz Minguez, Maite Alzola, Goizargi Amesti, Patrizia Mugika, Izaro Zuazua, Maider Bilbao, Iñaki Bidosola, Jokin Txapartegi, Jon Bengoetxea, Ander Carmona, Oier Araiztegi, Gorka Alzaa, Txomin Espilla, Juan Fernández, Mertxe Agirre, Irene Txurruka, Germán González, Alberto González, Ramón Espilla, Mila Guenetxea, Aitor Moreno, Jhonatan Herrero, Jon Ander Lerin, Teresa Garai, Maria Ormaetxea, Oskar Morales, Iker Saez de Zaitegi, Begoña Fernández, Iñaki Delgado, Aitziber Berrizbeitia, Mariage González, Marta Lope, Marivi Lista, Mari Karmen Urkidi, Miren Astarloa, Maritxu Etxebarria, Arrate Arruti, Nieves Arregi, Josefina Fernández, M<sup>a</sup> Nieves Antxustegi, Maritxu Amillategi, Carmen Solozabal, Gloria Mallea, Pilar Bilbao, Piedad Laurizirika, Juanita Azpiazu, Berta Yarza, Nati Yarza, Juanmi Bravo, Axier Mandiola, Jasone Izarra, Gaizka Areitioaurtena, Marines Txurruka, Nagore Espilla, Igone Amesti, Estibalitz González, Nerea Izarra, Dorleta Vidal, Ane Saenz, Rosa Jaussi, Manuel Moreno, Markos Gimeno, Alicia Lorenzo, Ignacio Urreta, Egondo Elektrizitatea, Javier Garro, Aitor Garro, Juan Luis Araiztegi, Eskupilota Taldea, Gazte Asanblada, Eskilarapeko, Infreñu, Txalaparta, Mallabiko Udala eta Ermuko Udala. **Eskerrik asko!** Norbait ahazten bazaigu ere, eskertuta dauka!



Pintxo eta gosariak  
Goizeko 7:00etan  
zabaltzen dugu

Karabixa 2 · Ermua



optika

itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK  
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

# JOSE MARI ALDEKOA

- *Nolakoa zen Sallabente zure haurtzaroan?*

Etxe gutxi ziren eta Ermutik banatua zegoen auzoa zen. San Antonio okindegira arte ez zen etxerik. Errepi-detik ere ez zen ia autorik igarotzen, bide erdian jolas-ten genuen askotan.

- *Ermura joango zineten...*

Gu elizaz ermuarrak ginen eta udalez zaldibartarrak; beraz, doktrinara Ermura joaten ginen eta igandenko arratsaldetan Ermuko zinera.

- *Ikasketak non egin zenituen?*

Sallabenteko eskolan aurrena, Doña Felisarekin. Ondoren seminarioan ere ibili nintzen, Eibarko La Sallen jarraitu nuen eta ingeniari-tza ikasketak Arrasaten gero.

- *Lanean ibilbide luzea duzu.*

Copreci kooperatiban hasi nintzen, gero Fagor Elektronik-kan, ondoren MCCko konponentean saileko buru egin ninduten eta duela 2 urte, gaur egun dudan kargua hartu nuen. Leku bakoitzean 10 urte inguru eman nituen eta denetan gustura nengoela egokitu zitzaidan aldaketa.

- *Halako postuan egoteak zer dakar?*

100.000 langiletik gora gara eta guzti horien ordezkari gisa ari naiz lanean. Sentsibilitate eta kultura askotako langileak eta herriak batzen ditugure taldeak. Euskal Herritik kanpo, hemen baino langile gehiago ditugu adibidez. Postua eskaini zidatenean, ibilbide luze baten ostean, egon izan naizen leku guztietan be-



**62 urte. Arrasaten bizi arren, jaiotzez Ermuko Sallabente auzoan jaioa. Gaztaro bertako errekan eta soroetan jolasten pasa zituen. Gaur egun, Euskal Herriko enpresa talderik haundiena den Mondragon Kooperatiba taldeko burua da. Jubilatzeke urte gutxi gelditu arren, krisitik nola atera, horixe du buruhauste nagusienetako bat.**

zala, gogoz hartu nuen nire eskuetan dagoen guztia emateko aukera eskaini didalako.

- *Krisia eta krisia. Ez da besterik entzuten...*

Gure kasuan aspalditik sumatu genuen krisiaren arriskua eta etxeko lanak ondo eginda harrapatu gaitu. Badakigu non gauden eta norantz joan nahi dugun eta horrek krisitik ateratzen lehena go-lagunduko digu.

- *Zein eratako krisia da hau: finantza krisia, teknologikoa...?*

Hau kapitalismoaren krisia da. Azken 15 urteotan, etorkizuneko dirua aurreratu digute, gure benetako ahalmenak baino goragoko bizi maila guelakoan eta sistema bertan behera amildu da. Uste genuena baino pobregoak garela sinetsi beharra daukagu. Bizpahiru urte beharko dira egoera honi buelta emateko. Hala ere, ez dut uste orain arte izan dugun bizi mailara itzultzeko aukerarik izango dugunik.

- *Krisitik ateratzeko giltza...*

Krisiaz jabetzea, etengabeko formazioa eta informazioa kudeatzeko gaitasuna, merkatu globalizatu honetan egon daitezkeen aukera berriak ondo baliatzeko.

- *Eguneroko agenda beteaz izango duzu...*

Kanpotik eskaera asko iristen zaizkit: elkarrizketa, mahai-inguru, hitzaldi... Askori ezezkoa eman behar izaten diet. Nire esfortzu guztiak barne lana egiteko erabiltzen ditut. Izaten dira halere, taldearen izenean egin beharreko harrerak eta bidaiak.

- *Jubilatu ostean, zein asmo duzu?*

Badira bere laneko azken urteak erretiroa prestatzeko erabiltzen dituztenak. Ez da hori nire kasua. Ez dakit benetan zer egingo dudan jubilatzen naizenean. Izango dut denbora gerora ere horretan pentsatzeko.

- *Ermura etortzen zara?*

Arrasaten bizi naiz eta asteburuetan Donostiara joaten gara. Zoritxarrez hiletak direnean etortzen naiz, baina gaztetako betiko lagunekin urtero egiten dugu egun-pasa eta bazkariren bat.

- *Ez zara komunikabideetan asko azaltzen...*

Ez dut zarata maite. Ni Sallabentekoa naiz, langile bat, besterik ez.

- *Zerk ematen dizu eguneroko aurrera egiteko indarra?*

Egiten dudana ondo egiteak eta nire eskuetan dagoen guztia egitearen lasaitasunak. Nire kontzientziarekin lasai egoteak.

Asier Ibaibarniaga

**Yoga eskola**

**Sanatana Dharma**

San Roke 24, behea  
Informazioa: 943748593 edo 685722131 (Idoia)

**TELEFLOR INTERNATIONAL**

Zubiaurre 14  
Telef. 943 17 28 88  
48260 ERMUA

**EGUZKILORE**

# Aitor Hernández: “Egiten ari naizen denboraldiarekin pozik nago”

**E**uskaltel Euskadiko txirrindulari taldean laugarren denboraldia burutzen ari da 27 urteko ermuarra eta modu txukunean gainera. Erregulartasun handiz dihardu eta horren erakusle, Espainiako itzulian egindako lana izan da. Korritzen duen laugarren itzuli handia izan da. Itzuli horretan zela egon gara berarekin.

## -Zer moduz zaude?

Egia esan nekatuta, etxeratze eta deskantsatzeko gogo biziz.

## -Espainiako itzulian, zein izan da taldearen hasierako helburua?

Itzulia irabaztea. Horixe zen hasierako asmoa. Samuel Sanchez izan da taldeko liderra eta bera zaintzea eta berari laguntzea izan da taldekideon lana. Momentuz bide onetik goaz eta aukera dezente ditugu lasterketa irabazteko edo podiumaren goialdean amaitzeko.

## -Ihesaldiren batean ere ikusi zaitugu...

Samuelentzat lana egiteaz gain, ia egunero saiatu gara zeuden ihesaldietan lana egiten, geure burua egon zedin. Nik ere izan ditut nire aukerak eta pozik nago egindako lanarekin.

## -Euskal Herriko jarraitailerik sumatu duzu?

Mendiko etapetan banaka batzuk.

## -Zein izan da izan duzun egunik okerrrena?

Mendatean amaitzen ziren zenbait etapetan, etapa hasieratik lan asko egitea egokitu zait eta juxtu xamar amaitu ditut etapa horiek. Orokorrean nekatua nagoen arren, indarrez amaituko dut aurtengo Espainiako itzulia.


## -Espainiako itzulian lehenago ere parte hartu izan duzu...

Aurtengoa izan da egiten dudana laugarren itzuli handia. 2006an, Tour-a egin nuen, 2007an Giroa egiten ari nintzela erorikoa izan nuen eta bertan behera utzi behar izan nuen lasterketa eta iaz eta aurten Espainiako itzuliak egin ditut.

## -Laugarren denboraldia duzu jada aurtengoa. Zer moduz joan da denboraldia oro har?

Lasterketa askotan aurreneko hamabost txirrindularien artean amaitu dut eta horrez gain Paris-Niza eta Euskal Herriko itzulian podiumera igo naiz mendiko saria zela eta. Erregulartasuna erakutsi dut, orain arteko denboraldietan agertzen ez nuen erregulartasuna eta momentuz pozik nago egiten ari naizenarekin.

## -Zure taldekide den Mikel Astarlozaren dopina ere



Aitor Hernández

## albiste izan da...

Gu lasterketan ginela jakin genuen berria. Taldeak sumatu zuen albistea, baina zorionez bai entrenatzaileak eta bai taldeko managerak ere lasai egoteko esan ziguten, babesleek aurrera jarraitzeko asmoa azaldu baitute. Mikeli babes osoa eskaini diogu taldekide guz-

tiok.

## -Zein asmo dituzu denboraldia amaitzeaz dela?

Italiako klasikoetan hartuko dut parte. Espainiako itzulia amaitu ostean deskantsu txiki bat hartu eta Italiara abiatuko naiz Paris-Tours eta Lonbardiako klasikoetan aritzeko.

Asier Ibaibarriaga

*Pub Dakota*



Probaleku, z/g  
Ermua (Bizkaia)  
dakotaermua@hotmail.com

**Ardo banatzailea:**

Riedel	Hugel&Fills
Avgvstvs	Anima Negra
Clos Mogador	Trache
Yllera	Cillar de Silos
Cantosán	Vriego
Luis Cañas	Laurona

**DISTRIBUCIONES ARRAL**  
TELEFONOA: 943 17 60 75



1951 urtean San Cristobalen aterata. Mallabiko 'Aitxu' auzoko seme-alabak: Juan Garitaonandia 'Etxebarria', Josepa Garitaonandia 'Etxebarria', Julian Garitaonandia 'Etxebarria Gaine', Rosario Narbaiza 'Aitxu Gaine', Victor Narbaiza 'Ezkerra', 'Aitxu Gaine'.



**1951**  
**(MALLABIA)**

**(ERMUA)**  
**1982**



Argazki hau Iparraldeko Larrun mendian atera zen, 1982eko abuztuan. Bertan ermuar eta mallabitar ugari agertzen dira: Ane Orbe, Mertxe Azkorbebeitia, Itziar Gerrikaetxebarria, Agus Agirregomezkorta 'Lomiño', Maritere Izagirre, Maria Luisa Txurruka 'Hanbre', Miren Areitioaurtena, Andoni Gerrikaetxebarria abadea, Miren Astarloa 'Betiondo', Mari Nieves Antxustegi, Eloi Zelaieta 'Hanbre'.



Irailak 30  
9 urte jada!!! Zorionak Ainhoa eta musu erraldoi bat Maite, ama eta aitaren partez.



Urriak 10  
Zorionak Oier. Naroa, ama eta aitaren partetik! Muxu handi bat.



Urriak 25  
Zorionak Leire! Ondo pasa zure urtebetzean! Lagunen partez.




Urriak 3  
Zorionak Piedi! Hiru muxu handi!! Etxeko guztien partez!



Urriak 11  
Ondo pasau zeure urtebetze egunien. Pastelen zain egongo gaz!!



Urriak 14  
16 urte jada!! Zorionak Nerea etxeko guztien partez. Muxu handi bat eta ondo pasa!!



Urriak 3  
Zorionak Asier! Etxekoen eta lagunen partez! Ondo pasa zure 6. Urtebetzean. Muxu handi bat!



Irailak 21  
Zazpi urtez gure bizitzak alaitzen egon den ume honi, < muxu asko bere urtebetzean. Zorionak maittia!



Irailak 18  
Zorionak Manex zure 5. Urtebetzean, familia eta lagunen partez!!



Irailak 10  
Zorionak Ines etxekoen partez! 9 urte, zenbaki magikoa!!

Zer edo zer saldu, erosi edo alokatu nahi baduzu, bidali zure iragarkia drogeten@gmail.com helbidera edo 943 17 93 50 telefonora deitu. Bestalde, norbait zoriondu nahi baldin baduzu, Drogeteniturrin kaleratu ditzakegu zure lagun edo senideen argazkiak eta zorion agurrak. Bidali helbide berdiner.

Hurrengo alerako azken eguna:  
**URRIAK 20.**



**Senén**

www.joyeriasenen.com

**Cable Spot**

25 urteko esperientzia dugu antena kolektiboak eta atezain automatikoak instalatzen.

Zure antena TDTra egokitu. ETEN ANALOGIKOA GERTU DAGO!

**EUSKALTELEN BANATZAILEA**

Telefonia mugikorra, zuntz-optikoa, banda zabala, kable telebista... euskaltel

**ERMUA. San Pelayo 4 behea. 943 172314**



## Alejandro Masie

MEDIKUA

# A Gripea

Gripea gaixotasun birala da eta normalean epidemia moduan ne-  
guan nozitzen du biztanleriaren  
zati handi batek. Printzipioz gri-  
pea gaixotasun arina da, sukarra  
eta arnasketa sintomak izaten di-  
tuen. Oraingo A gripea, hasieran  
txerrien gripe gisa ezagutu genu-  
na, gripearen birusaren azpitalde  
batek sortu du. A/H1N1 birusak  
hain zuzen ere eta 2009an Mexi-  
kon hasi zen. Bere sintomak urta-  
roko gripearen sintoma berberak  
dira: sukar altua, muskuluetako  
mina eta ondoeza. Sintoma horie-  
kin batera, buruko mina, eztula,  
doministikuak, burutik beherakoa  
eta batzuetan gonbitoak eta be-  
herakoa ager daitezke. Iraupena  
astebetekoa izan ohi da, nahiz eta  
nekea eta eztula beste astebetez  
luz daitezkeen.

Urtaroko gripearen ondorioz

gaixotzen direnak bezala, konpli-  
kazioak izateko arriskua duen per-  
sona multzo bat badago: haurdun  
dauden emakumeak, gaixotasun  
kronikoak dituztenak, diabetes  
mota batzuk dituztenak, gutxi-  
gitasuna dutenak eta obesitate  
morbidoa dutenak. Konplikazioak  
ager daitezke honako kasu haue-  
tan ere: arnasa hartzeko zailtasu-  
na umeengan nabaritzen denean,  
azalean erupzioak edo gripearen  
sintomak hobeto eta berriz ager-  
tzen direnean. Baita norbaitek 4  
egun jarraian 38°C baino sukar al-  
tuagoa izan badu, arnasa hartzeko  
arazoak baditu, bularrean edo sa-  
belaldean presioa nabaritu edo  
min badauka edo zorabioak ditue-  
nean.

Nire ustez gizarte alarma sortu  
da gaixotasun honen inguruan eta  
gaixotasuna urtarokoa da, aldatu  
den bakarra birus mota izan da.

A gripea oso kutsakorra da, bai-  
na nahiko arina. Negu australa ia  
gutziz igarota, mundu osoan orain  
arte egiaztatu diren 250.000 gaixo  
egon dira eta orotara 1800 lagun  
hil dira. Estatu espainiarrean ohi-  
ko negu batean urtaroko gripeak


jota 3000 lagun inguru hiltzen di-  
ra.

Birusa pertsonen artean kutsa-  
tzen da, batez ere airearen bitar-  
tez, txistuaren bitartez, estula  
egitean kutsatuta dagoen perso-  
nak botatzen duen jariakinaren  
bitartez, hitz egitean edo domi-  
nistiku egitean airean edo eskue-  
tan geratzen diren mikro-tanten  
bitartez.

Jendea zuzenean kutsa daiteke  
kutsatuta dagoen pertsonaren mi-  
kro-tantak arnastean. Norbait ze-  
harka kutsa daiteke, mikro-tantak  
eskuetan geratzen direnean eta  
norberaren ahoa, begiak edo su-  
durra ukitzean. Eperik kutsakorre-  
na gaixotasunaren hasierako bost  
egunak dira.

Laburbilduz, jendeari lasai ego-  
teko esango nioke, batez ere gai-  
xotasun kronikorik ez bada edo  
haurdunaldirik ez bada tartean.  
Hala eta guztiz ere, osasun zerbi-  
tzuek edozein kontingentzietara-  
ko planak prest dituzte. Alegia,  
gripearen sintomarik ez badago,  
eskua emanez, musu emanez edo  
besarkatuz agurtu daiteke jen-  
dea.

**A gripea oso  
kutsakorra da,  
baina nahiko arina**



**IKASTOLA**  
38 urte Ermua  
euskalduntzen



**TXINDURRI  
TALDEA**  
Tokian  
tokiko



**Enter**  
INFORMÁTICA  
SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA  
VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es



- ARRAINDEGIA  
- ITSASKIAK  
- ARRAIN FRESKOAK ETA  
IZOZTUAK

**ESKAINITZA BEREZIA  
OSTRALERO**

Zubiaurre, 21 baxua  
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)  
" 17 24 33 (etxea)  
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59  
ERMUA

# Badukazu informaziorik A gripearen inguruan? Beldurra diozu?

Nahiz eta zaharren egoitza batean erizain moduan lanean nagoen, ez digute informazio zehatz eta berezirik eman, ez omen gara arrisku taldeen artean sartzen. Ez diot beldurrik.



**Leire Barrutia. 28 urte. Langilea**

Dakidana telebistan ikusi eta entzundakoa da. Kezka apur bat sortzen dit, batez ere nire senarra asmatikoa delako, baina neguko gripeak sortzen didan baino kezka gehiago ez behintzat.



**Amaia Egaña. 32 urte. Langilea**

Ez dakit informazioa den hedabideek ematen digutena... Horixe da dakidana eta nire lagun batek sintomak dituela. Ez diot beldurrik. Arrisku taldean egon ezean, ez dut uste kezkatzeko arrazoirik dagoenik.



**Javier Pérez. 25 urte. Langilea**

Ez daukat informazio berezirik, dakidana telebistan ikusi eta entzun dut. Ez daukat beldurrik, ez nagoelako arrisku taldeetan eta A gripeaz kutsatuko banintz, ez dut uste arazorik izango nukeenik osatzeko.



**Laura Carrero. 23 urte. Langilea**

Egun hauetan guraso-  
ok eskolatik orri bat jaso dugu eta bertan A gripearen inguruko sintomak eta nola osatu azaltzen zaigu. Bestela, telebistan entzundakoa dakit. Ez nau kezkatzen, gripe arruntaren antzekoa delako.



**Alberto Arginzoniz. 46 urte. Langilea**

Dakidana telebistan entzun eta ikusitakoa da batez ere. Ez diot beldurrik. Hedabideek larregizko garrantzia eman diote eta ematen ari dira eta uste dut horren guztiaren atzean interes ekonomikoak daudela.



**Alain Cortés. 24 urte. Langilea**

Testua: Alazne Aiestaran



## ZUBIAURRE

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIO ETA MUNTAI ELEKTRIKOAK  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

Zubiaurre, 18 - ☎ (943) 17 00 61 Faxe. 943 17 42 17  
48260 ERMUA



**ez zaitetz atzean gelditu, zatoz guregana!**

Diputazio, 15 - behea

943 17 01 88

**UMEENTZAKO  
ZINEA**

**Hilak 4**  
'Guerra de novias'

**Hilak 11**  
'Barriola, San Adriango azeria'

**Hilak 18**  
'El reino de los chiflados'

**Hilak 25**  
'Monstruos contra alienígenas'  
17:00etan. Lobiano Kultur Gunean.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 1**  
'El caballo de dos piernas'

**Hilak 8**  
'La mujer del anarquista'

**Hilak 15**  
'La teta asustada'

**Hilak 22**  
'El niño pez'

**Hilak 29**  
'El corazón del tiempo'  
19:00etan eta  
21:30ean. Lobianon.

**MUSIKA**

**Hilak 17**  
Blues kontzertua: Bill Lyerly Band. 20:00etan. Lobianon.

**Hilak 18**  
Alboka Musika Eskolako Banda. 13:00etan. Orbe Kardenalaren plazan.

**Hilak 23**  
Kantu emanaldia: Ainhoa Zuazua, Francisco Borja Mariño. 22:15ean. Lobianon.

**Hilak 30**  
Art Trio Bohemia. 22:15ean. Lobianon.

**Hilak 31**  
Ermuan Kantuan. 12:30ean. Orbe Kardenalaren plazatik.

**ANTZERKIA**

**Hilak 2**  
'Rock Comedy show'. 22:15ean. Lobianon.

**Hilak 9**  
'A gusssto!'. 22:15ean. Lobianon.

**Hilak 16**  
'El pico de las viudas'. 22:15ean. Lobianon.

**ERAKUSKETAK**

**Hilaren 4ra arte**  
Ertibil Bizkaia: Bizkaiko artista gazteak.

**Hilaren 5etik 18ra arte**  
Panelak: 'Garapenarako berdintasuna: emakumeak aurrera egiten badu munduak ere bai'.

**Hilaren 19tik 31ra arte**  
Argazkiak: 'Mikologia eta natura'. Joaquín Sánchez.

**Hilaren 26tik 31ra**  
Argazkiak: 'México: dignidad rebelde'.  
Lanegunetan 18:00etatik 20:00etara.  
Asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Lobiano Kultur Gunean.

Haurrentzako antzerkia: 'El ratón viajero'. 17:00etan. Lobianon.

**Hilak 31**  
Haurrentzako antzerki musika: 'Musika tresnen fabrika'. 17:00etan. Lobianon.

**BESTELAKOAK**

**Hilaren 5etik 11ra**  
Gaztela- Leoneko kultur astea: hainbat ekitaldi.

**Hilaren 22etik 25era**  
Mikologiari buruzko ihardunaldiak.

**Hilak 24**  
Motordunen jaia: hainbat ekitaldi. 18:00etatik. Probaleku kalean.

**Hilak 31**  
'México Rebelde' jaialdia: hainbat ekitaldi. Plazan.

Patxi Lopez

**UMEENTZAKO  
EKITALDIAK**

**Hilak 3**  
Ipuin kontaketa: Lur Kortaren eskutik. 17:30ean. Udal Liburutegia.

**Hilak 10**  
Haurrentzako antzerkia: 'Karmela bizitza osoa'. 17:00etan. Lobianon.

**Hilak 24**

**BERBALAGUN:**  
Urriaren 5etik aurrera, izena emateko epea zabalik egongo da. Aurkezpen-luntxa, urriaren 15ean izango da Lobianon, 19:30ean.

**Harategia****M. LAZKANO**

**BERTOKO OKELAK**  
*Geure Baserrian*  
*Hazitako Txalak*

GEUK GIZENDUTAKO  
ABELTZANTZA  
Merkatua, 36-37 zbk.k  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**OPTICA  
J. CASADO**

Lenteak  
Audifonoak  
Graduatutako Antiajuak  
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2  
Tfnoa. 17 33 57

**ERMUA****MIGUEL  
Harategia**

**TXORIZOAK**  
**ODOLOSTEAK**

Probaleku, 3  
☎ 17 05 63  
**ERMUA**  
(Bizkaia)

**hamburguesería  
TITANIK**

*Pintxo dastaketa*  
*poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83